

Euskarapraktika-  
tzeko **Familia-  
Mintzakide**



Sakanerria >> 6

**Helena Santano Cid** artista  
altsasuarrakbibideo-sormenengatik  
sari bana jaso du



Kultura >> 15

# Koordinazioa, emakumeen kontrako indarkeriaren aurka

>> 9



**Etxarri  
Aranazko eta  
Urdiaingo  
udalek  
batzarrak  
deitu dituzte**

>> 5/7

**Altsasun  
8 langile  
kontratatzeko  
prozedura  
martxan**

>> 7

# Umeak osasuntsu hazteko

Hurrek egoki jan eta hazteko, Burunda mendebaldean ohitura osasuntsuak zabal-  
tzeko programa martxan jarriko da heldu den astean

>> 5

**Kartzela parean  
presoen  
eskubideak  
aldarrikatzen**

>> 8



**Altsasuko  
Duatloia bihar,  
goiz eta  
arratsaldez >> 11**



**Irurtzunen  
prekarietatearen  
kontra  
korrika >> 8**



**Olaztin Nafarroa-  
ko Abiadura  
Irristaketako  
proba >> 11**

**La cigüeña**

**AZKEN UNITATEAK  
MARTXOAK 31 ITXIERA EGUNA  
PREZIOAK MERKEAGO**

948 467 106 • La Paz kalea 34 • Altsasu  
www.lacigüeñabebes.com • www.facebook.com/lacigüeñadealsasu

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Agueda Maiza Erdozia**  
ZORIONAK zure 93. urtebetetzean!! Muxu handi bat etxeko guztien partez. Asko maite zaitugu.



**Aitor Arruabarrena**  
ZORIONAK zure 5. urtebetetzean. Ongi pasa ta muxu haundi bat etxeko partez.



**Eukene eta Mara**  
ZORIONAK zuen 11. urtebetetzean!! Ondo pasa eta muxu handi bana.



**Izai**  
ZORIONAK Izai!! Jadunik 11 urte!! Zorionak eta muxu handi bat etxeko partez.

## otsailak-marsuak

# 26-3

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

### Musika

**Esne Beltza Sound System**. Otsailaren 26an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiako Barandi tabernan.

**Antton Aranburu & Bikiak**. Otsailaren 27an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Haritza tabernan.



**Zamarra eta Aterkia**. Otsailaren 27an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Arkangoa tabernan.

### Antzerkia

**Il gondolero di Triana**. Otsailaren 27an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Marcelo Casas**.

### Ipuin kontalaria

**Mariren mozarroak**. Otsailaren 26an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Birjiñe Albira**.

### Dokumentalak

**Verd, dolc, jazz. El Martineti buruzko hiru ikuspegi**. Martxoaren 3an, ostegunean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Sakanako eskola txikiak**.

### Zinema

**3 corzones**. Otsailaren 26an, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 28an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**El renacido**. Otsailaren 26an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 28an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Koko, dragoi txikia**. Otsailaren 28an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Galdeano-Lokiz-Ganuza**. Otsailaren 28an, igandean, 7:30ean Olatzagutiatik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak**.

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Irurtzun-Altsasu**. Otsailaren 27an, larunbatean, 10:00etan Altsasuko Baratzeko bide

plazako lokomotoratik. 69 km. **Zikloturista taldea**.

**Urdalur**. Otsailaren 28an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 50 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea**.

### Irteerak

**Etxeberriko buelta**. Otsailaren 28an, igandean, 10:30ean Irurtzungo plazatik. **Familia-Mintzakide**.

### Erakusketak

**Zero grabitatea**. Martxoaren 17ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Tailerrak

**Kosmetika naturala**. Otsailaren 27an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Mosaikoak**. Martxoaren 3an, ostegunean, 18:30ean Ziordiko liburategian.

### Bestelakoak

**Telebistako programaren txapelketa**. Otsailaren 27an, larunbatean, 21:15ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Deialdiak

**Parkeko bigarren fasea abiarazteko bilera**. Otsailaren 26an, ostiralean, 17:00etan Lakuntzako udaletxean. **Parkea Martxan**.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 26an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea**.

**Herri batzarra**. Otsailaren 27an, larunbatean, 11:30ean Urdiaingo herriaren etxeko auzoan, udalaren aurrekontuez eta bestez aritzeko.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 28an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Herri batzarra**. Martxoaren 3an, ostegunean, 18:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean udalaren lan ildoaz eta aurrekontuez.

## » Irurtzun / Altsasu

### Martxoak 8rako izen emateak zabalik

Emakumeen Eguna dela eta Sakanan maki-na bat ekitaldi antolatu dira. Haietako bitan aurretik izena eman beharra dago. Hala, Irurtzunen **emakumeendako afaria** prestatu dute martxoaren 5erako. Erga-Larreak elkar-tean izanen da, 22:00etan. Izena eman nahi duenak Pikuxarren, Erga-Larrearen eta kultur etxean egin dezake, ostegunera arte. Afariaren ondoren, Lorena Arangoaren emanaldia izanen da.

Altsasun, berriz, hirugarren aldiz **Lilasterketa** antolatu dute. Emakumezko eta neskendako lasterketa ez lehiakorra martxoaren 13an izanen da, 11:30ean. Doan eman daiteke izena [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web-gunean, 948 564 823 telefonoan (Emakumeen Bilgunea) eta lasterketaren egun berean Gure Etxea eraikinean, 11:00etan. Altsasuko Udalak antolatu du lasterketa, Dantzaleku-Sakana atletismo taldearen laguntzaz.



## Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Mikel Lakuntza, triatloi taldeaz
- Unai Hualde

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

# Sakana Triatloi Taldea 2016



Otsailaren 20an egin zuen aurkezpena 2016ko Sakana Triatloi Taldeak, Altsasuko Zelandi kiroldegian. Zuzendaritza taldea Mikel Lakuntza lehendakariak, Sergio Garcia de Eulatek, Javier Borregak eta Juan Luis Maizak osatzen dute. Aurtun 36 kide daude, txikienak 8 urte ditu eta edadetuena 56 eta 3 emakume ere badaude.

Taldekieak: Isidro Asurabarrena, Juantxo Azurmendi, Urko Berdud, Javier Borrega, Jose Manuel Borrega, Sergio Garcia de Eulate, Mikel Lakuntza, Juan Luis Maiza, Juan Carlos Gomez, Francisco Javier Gomez, Esteban Berdud, Gorka Garcia de Eulate, Jorge Iradi, Iñaki Alvaro, Iban Gonzalez, Borja Gonzalez, Eneko Iturbe, Ivan Sobredo, Aitor Mozo, Alejandro Zabala, Juan Martinez del Olmo, Leire Maiza, Xabier Borrega, Hegoi Lakuntza, Iker Mintegi, Unai Villalobos, Aitor Aldunate, Nahia Imaz, Ekain Imaz, Alain Razkin, Mikel Tanita, Fermin Azkargorta, Josu Ducar, Jokin Lazkoz, Gorka Mintegi eta Silvia Perez.





Oihane Andueza Imirizaldu

astekoa

# Zalantzak eta mugimenduak

Buruari eragitea da ohikoena. Jira eta buelta, aurrera eta atzera. Zalantza.

Hau ongiotedagoalagaizki? Zera esaten badut, besteak zer pentsatuko du? Ez, ez dut esango, ia hanka sartu eta kritikatzan nauten.

Zer den ona, zer txarra, epaia gertu dela pixkanaka kikitzen goaz, burua zergatik makurtzen dugun jakin gabe, pentsamenduaren eta izan zitekeenaren berdurraren pisuaz.

Begirada behera eta kea dariola

la belarrietatik, norberaren pelikularen pantaila da burua, gure muturretik haratago ikusten uzten ez gaituena.

Gure ontziaren, gorputzaren, mandoak eta botoiak hor daude, oinak nora doazen kontrola eta

aginduak ere kaskoakematenditu.

Gorputza eta buruaren tartean bihotza. Taupa, taupadaka. Zorionez mugimendu hori borondatez haragokoa da, kontrolaren eta epaiaren atzaparretatik kanpoko. Kontrakzioa, zabaltzea bi pau-

sutan ematen da, oso simplea.

Bert Hellingerrek esaten duen bezala, gizakion aukeraketa gutien atzean oinarritzko bi mugimendu besterik ez daude, bizitzarantz ala heriotzerantz eramaten gaituztenak.

## hara zer dien

# Lagunak eta harreman sozialak umeengan

Pertsonen, beraien garapen psikosozialaren prozesuan, zenbait garapen eta zeregin burutu behar dituzte. Badaude haurtzaroen hartu beharreko trebetasun batzuk, aurre egin beharreko erronkei irtenbide egokia ematen lagunduko diotenak.

Orokorrean, zeregin ebolutibo batzuei soluzio egokia bilatzen jakiteak pertsona arrisku psikosozialen aurrean gogorrago egiten du. Bestalde, zeregin ebolutibo berei erantzun egokia ez emateak pertsona ahulago egiten du,

beraz, arriskufaktore bezala hartu daiteke.

Pertsonaren garapenean hauek dira zeregin garrantzitsuenak:

Lehen haurtzarotik atxikimendu harremana izatea. Honiesker harreman sozialaren lehenengo ereduak garatzen dira, oinarritzko segurtasuna, estresari aurre egiteko modua ....

Berejokaera norberaren helburretara zuzentzeko ahalmena, eta bilatzeko ahalegitea (bi eta sei urte tartean). Hortik aurrera beste helduekin harremanetan

jartzeko eta zeregin berriei independenteki egokitzea.

Trebetasun pro-sozialak garatzea, berdinekin dituzten harremanetatik ikasita, sei urteetatik aurrera.

Nortasun ezberdindua eta positiboa eraikitzea nerabezaroen.

Laguntasunerako trebetasunak ikastea.

Familiaren barruko harremanak bereziak dira, familiatik kanpo izango dituen harremanetarako ikasteko modua izan badaiteke ere. Familiatik atera-

terakoan lagunak aukeratzeko posibilitate asko daudela ikusten du, eta harremanak eta testuinguru sozialak negoziatu ditzakeela.

Lehen hezkuntzatik aurrera lagunak egiteko ahalmen orokorrean lau oinarritzko trebetasun agertzen dira:

- Harreman ona izan helduekin eta baita bere adinekoekin ere.

- Elkarrekin lan egin eta estatuta trukatu.

- Onarpena adierazi, besteen proposamenak onartu.

- Atentzioa eta protagonismoa banatu, besteei ere eman.

Ume eta nerabe onartuenak zeintzuk diren aztertzeko egin diren ikerketak zera erakusten dute: harremanen egoeraren kontrola batzuetan izatea uzten diotenak, estatusa trukatzeko edo antzeko estatusa izatea onartzen dutenak errazago aukeratzan dutela.

**Sakanako Gizarte Zerbitzuak**

## objektibo tik



### Despentsa ederra:

Azak, porruak eta ziazerbak (azelgak) baratzeetan, Sakana luze-zabalean. Jaki goxo askoak prestatu daitezke halakoekin. Baietz burura hiru errezeta baino gehiago etorri! Gainera etxekoak izanda, goxoagoak!



### Gasa Bakaikun:

Iturmendi eta Bakaiku hegoaldetik lotzen dituen Txoritegiko bidetik iritsi zen gasa Bakaikura joan den urte akaberan. Hilabete honetan Bakaikun barna gas sarea zabaltzeko lanak egiten ari dira.

objektibo tik: [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIOA:** Mainer Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitate@guaixe.eus](mailto:publizitate@guaixe.eus)  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitx Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

**ZUZENTZAILEA:** Garazi Barandalla

**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.eus](mailto:argi@guaixe.eus)

**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995

**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Salburordetza

## SAKANA

## Turismo teknikaria, aurki

Sakanako Garapen Agentziako (SGA) administrazio kontseiluak turismo teknikari baten kontratazio prozesua abian jartzea onartu zuen aurreko ostegunean. Deialdia aurki aterako da jendaurrera. Teknikariak Sakanako Plan Estrategikoan (SPE) turismoari dagozkion kintzak aurrera eraman behar dituzte. Turismoari dagozkion sustapen, koordinazio eta garapen lanez aparte, kultura, ondarea, kirola, merkataritza eta laborantzako eragileekin ere elkarlana sustatu behar du. SGAK "gure ondarea oinarri hartuta, turismoa zentzu zabalean lantzeko gaitasuna izan den eta eragile ezberdinekin elkarlanean aritzeko gaitasuna duen pertsona bat" kontratatu nahi du.

Iker Manterola garapen agenteak gogorarazi du Sakanako turismo eragilean "aspaldiko eskaera" dela turismo teknikariarena. Manterolak ziurtatu duenez, "SPEn baitan sortutako dinamikei esker eta 2015ean Bide-lagun Turismo elkarteak Sakanako garapen Agentziarekin elkarlanean egindako bideak, Sakanan turismoa sektore ekonomiko bezala garatzeko inarriak jartzea ekarri du, eta horrekin etorkizunera ikusten diren aukerak modu egokian gauzatzeko baliabide gehiagoren beharra ikusi da".

## &gt;&gt; Etxarri Aranatz

## Udalak batzarrera deitu du

Martxoaren 3an, ostegunean, 18:30ean kultur etxean. Haurtzaindegi zerbitzua egonen da

Etxarriko Udalak batzar batera deitu ditu herritarrak. Udalaren aurtengo asmoak eta, arloz arlo, lan ildo nagusiak azalduko dituzte. Osteguneko batzarrak urteko aurrekontu proposamena ezagutzeko aukera emanen du. Eneka Maiz Ulaiar alkateak azaldu duenez, "informazio batzarrak udalaren gardentasun printzipioetan eta parte-hartzean sakontzeko ezinbesteko tresnak dira, etxarriarrek zuzeneko komunikazioa bermatzen dutenak".

## &gt;&gt; Altsasu / Olatzagutia / Ziordia

## Umeak osasuntsu hazteko

Haurrak egoki jan eta hazteko, heldu den astean ohitura osasuntsuak zabaltzeko programa martxan jarriko da

Burunda mendebaldeko Oinarriko Osasun Eskualdeko umeek bizi osasuntsua izan dezaten, programa batek elikadura onuragarria eta egunerokoan ariketa fisiko gehiago egiteko beharra sustatu nahi du. Altsasuko osasun etxetik bulkatu da, Osasun Publikorako Institutuaren, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren, Burunda mendebaldeko Haurtzaro eta Gazteriarendako Sarearen eta Altsasuko Udalaren laguntzaz. Aurreneko institutuak finantzatu du.

Altsasuko Osasun Etxeko Maria Jesus Azkarate erizainak, Roberto Valdes eta Sandra Gurtzarri Pellejero pediaterak eta Gurutze Goikoetxea gizarte langileak garatu dute programa. Azken biek jakinarazi digutenez, Nafarroan haurren artean loditasun eta gehiegizko pisua duten eremu eta bat Burunda mendebaldeko Oinarriko Osasun Eskualdea da. Orain arte aholkuak ematen zituzten, baina nahikoa ezezela ikusten zuten. "Horregatik, gaia kontsultatik harago landu nahi genuen". Dauden udal baliabideak "optimizatzeko" bitartekari lanetan aritu dira osasun etxetik.

## Programa

Eskualdean haur asko daudenez, Altsasuko osasun etxeko profesionalak 6 eta 9 urte arteko haurretan zentratzea erabaki zuten. Gurasoei informazio gutuna bidali ondoren 15 bat umek izena eman dute. Haiek martxoaren 1etik garrilarren 9ra, astearte eta ostegunero, ordu batez kiroldegian elkartzeko egonen dira. Kirol begirale batekin egonen dira, baina olgetarako tartea irekia izanen da.

"Helburu handirik gabe, haurrek ariketa fisiko egingen dute. Aerobikoa, ez-lehiakorra, ongi pasatzea, denak elkarrekin ibiltzea, mugitzea aitzineko jokoekin



Gizona Altsasuko osasun etxera sartzen.

edo arautu gabeko jokoekin". Umeen autoestimua landu nahi dute, umeek "oso gaizki" pasatzen dutela badakitelako. Zer esanzen dute, barre egingen dute, ez dut hainbeste korrika egingen... Halakorik ez dugu nahi. Hola nago eta, tira. Este reotipoetan sartu gabe". Haur horiei pediatria kontsultan jarraipena egingen diete.

Gainera, gurasoei zuzendutako hiru heziketa saio antolatu dituzte. Aste honetan gurasoei programaren edukien berri eman diete. Osasun arloko profesionalak argitu dutenez, "ez gara besteez ahaztuko. Gure helburua ume osasuntsuak eta alaiak izatea da, eta denek ongi pasatzea". Horregatik, guztiei jarraipena egingen diete.

## Aitzindaria

Lehen aldia da halako programa bat garatzen dena. "Osasun Publiko Institutuak osasun etxe batek halako eskaera egiteagatik poztu egin ziren. Bazekiten hainbat eskualdeetan zein arazo genuen, baina inork ez zuen pausorik ematen".

Ikasturtea oso aurreratua dago eta ume batzuk eskolaz kanpoko beste jarduerak batzuetan izena emanda daudelako ez dira progra-

man ariko. Asmoa lehenago hasitea zen, baina ezin izan da. Hala ere, heldu den ikasturtean programari segida emateko asmoa dute eta kurtso hasieratik martxan izatea nahi lukete. Bestalde, egitasmoaren osagarri, ikastetxeetan

Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuarekin batera sei urteko umei zuzendutako *Trankirekin jolastu, jan eta ongi pasa* programa lantzen ari dira. Beste ikastetxe batzuetan klasera oinez joateko programak dituzte.

## Gaitza

Modu jarraian behar dena baino gehiago janean gero, gorputzak bere adin, sexu eta altueraren arabera dagokion pisua baino gehiago hartzen du eta soberakoa gantz gisa gordetzen da. Gantz deposituak handitzen badira loditasuna agertzen da. Loditasuna gaixotasuna da eta harekin lotuta daude arteria-hipertentsioa, diabetesa, bihotzeko gaixotasunak, arnastekoak, muskulu eta hezurretakoak.

Haurren loditasunaren kontrageiteko egunero 60 minutuz jardura fisikoa egitea aholkatzen da (jolastea, eskailerak igotzea, ikastetxera oinez joatea, txakurra paseatzera ateratzea...) eta 2 ordu baino gutxiago ematea telebistari, bideojokoei edo bestelakoei. Horrekin batera, egunero gosaria,



hamaiketakoak, bazkaria, merienda eta afora egitea garrantzitsua da. "Kantitateak kontrolatuak izatea, hori oso garrantzitsua da". Frijitu gutxi eta fruta eta barazki ugari dietan sartzea gomendagarria da. Gantz aseak eta trans-gantzak arriskuak izan daitezke. Horrekin batera, azukre kontsumoa murriztea (gozokiak eta freskagarriak) gomendatzen da.

# Bardoak 2016

nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



laurantzak

GUAIXE.EUS

107.3 FM BELEIXE



MARTXOAK 4, OSTIRALA  
Etxarri-Aranazko Gaztetxean  
22:00etan, bertso-saioa

EINNEKIN  
(Etxarri-Aranatz)  
Eneko Lazkoz  
Saats Karasatorre  
Joseba Beltza  
Unai Artieda  
Jon Arratibel

LARUNGO ANTENAK  
(Bera)  
Julen Zelaieta  
Patxi Castillo  
Aitor Elexpuru  
Jokin Pinatxo

informazio osoa eta sarriak

WWW.BERTSOZALE.EUS

## » Irurtzun

## Etxeberriko buelta euskara ederrean

Igandean, 10:30ean, Irurtzongo plazatik abiatuta

Aizpeak, Irurtzongo euskaltzaleen topaguneak, eta Sakanako Mintzakide programaren ekimenez sortu da Familia-Mintzakide. Familia euskaldunei eta euskalduntzen ari diren eta euskaraz hitz egiteko gutxieneko maila bat duten pertsonen zuzendutako eskaintza da, bai gurasoendako bai seme-alabendako.

Hilero irteera bat prest dute. Igandean Etxeberriko txangoa izanen da euskaraz aritzeko aukera emanen duena. Irurtzongo plazatik Biahizpeko presarantz joko



Familia-Mintzakiden aurreko batean parte hartutako batzuk.

dute. Zubia gurutzatu eta Etxeberriko bideari helduko diote.

Behin Etxeberri aldapa beheari ekinen diote Irurtzuneraino

## Egutegia

Eguna	Jarduera
Otsailak 28	Ibilaldia, Etxeberriko buelta
Martxoak 20	Corriti artistari bisita
Apirilak 24	Sakanako Sortzen jaialdia
Maiatzak 29	Ibilaldia, Saien behatokia
Garagarzaroak 19	Ibilaldia, Arrantzaleen bidea
Irailak 25	Zehaztu gabe dago
Lastailak 23	Euskaraz bizi nahi dut eguna
Azaroak 27	Mahai jokoak

(Ibilbideen egunetan eguraldiak laguntzen ez badu bestelako ekintzak antolatuko dituzte, hala nola, sukaldaritza tailerra edo mahai jokoak).

errepidetik bueltatzeko. Familia-Mintzakideren antolatzaileek euskaldunei parte hartzeko deia egin diote.

## SAKANA



## 25 urte Altsasun NANak egiten

Espainiako nortasun agiria egin edo berri nahi duenak 012ra hots egin edo Altsasuko udaletxean eman dezake izena. Hurrengo hitzordua martxoaren 4an izanen da

Otsailaren 25 urte bete dira Altsasun Nortasun Agiri Nazionala (NAN) agiria egin edo berrietzeko aukera dagoela. Batez ere hiriburuetara joan ezin duten edo zailtasunak dituzten adindu eta haurrei tramitea errazteko sortu zen DNI-rural zerbitzua. Nahiz eta edozein pertsonaren agiriak berrietzeko dituzten. Nafarroako Poliziaren Burutza Nagusiak zerbitzu horren bidez administrazioa herritarrengana hurbildu nahi izan zuen.

Altsasun hilean bitan edo hirutan izaten dira zerbitzua eskaintzen, 9:00etatik 12:15era. Bisita bakoi-tzean 82 txanda ematen dira. Erdia, 42, nortasun agiria egin edo berri-tu nahi dutenen datuak jasotzeko da. Hitzorduen beste erdia egindako NAN-ak emateko da. Izan ere, Altsasun ez dituzte agiriak fisikoki egiten eta bitan joan beharra dago. Zerbitzua agorriean eten egiten da, oporregatik. Garai batean txandak zerrenda berehala betetzen zen eta luze jotzen zuen agiria berri-tzeko txanda lortzea. Orain gazte-ek hiriburutan ikasten dutenez, zerrenda betetzen da, baina ez da garai batean bezala zain egon behar. Bizpahiru astetan hitzordua ematen dute.

## BEHARREZKOAK

Agiria berrietzeko agiri zaharra eta norberaren gaur egungo argazki bat eraman behar da. Horretaz aparte, 10.6 euro ordaindu behar dira. Azaroan eta abenduan zerbitzua eten da egon zen NAN 3.0 delakoa ezartzeko. Agiri elektronikoko horren bidez internet bidezko tramiteak egin daitezke, bai txartel irakurgailuen bidez baita NFC teknologia dutenen bidez ere. Altsasun NAN-ak berrietzeko daitezke soilik, pasaporteak egiteko hiriburura jo behar da.

Abizenak euskal grafiarekin jartzea-gatik agiri asko berrietzeko dituzte Altsasun. Hori egin nahi duenak Erregistro Zibilerako behar du jaiotza agiri literala moldatzera. Behin hura aldatu ondoren, ziurtagiriarekin NANa berrietzera joan behar dago. Haren identifikazioa egiten dute eta zentralera bidaltzen dute. Pertsona berakela ziur-tatu ondoren abizenen aldaketa NAN-ean jasotzen da. Halakoetan hiru bisita egin behar dira.

1.500

Urtero Altsasun berrietzeko den NAN kopurua.

## » Altsasu

## Aste Santuko oporretarako aisialdi programak

3 eta 12 urte bitarteko haurrei (2004 eta 2013 urteetan artean jaiotakoak) eta behar bereziak dituztenei zuzenduta dago

Aste Santua iristearekin batera ikasleek oporrak hartzen dituzte. Lana dela eta, familia batzuetan txikiak norekin utzi ez dute izaten. Lana eta familia bizitza bateragarri egin ahal izateko Altsasuko Udalak Aisialdi Blai programa indarrean jarriko du. Klaserik ez dagoen

martxoaren 29an, 30ean eta 31n eta apirilaren 1ean izanen da programa martxan. Bi ordutegi aukera daude: 8:30etik 13:30era edo 11:00etatik 13:30era. Lehen ordutegia betekoez balitz, bigarren sortuko litzateke. Txantxari ludotekak hartuko du programa. Izen ematea helduden astean egin daiteke, 012 telefonoaren edo [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) web orriaren bidez.

Gu Geu Gazte programa, berriz, behar bereziak dituzten 12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Goian aipatutako lau egunetan izanen da indarrean, baina 17:00etatik 20:00etara. Udalen Gazteria Zerbitzuak antolatzen duen Gu Geu Gazte programarako izen ematea Intxostiapunta gaztegunean, 948 564 785ra hots egin edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) e-

postara idatziz egin daiteke, otsailaren 25etik martxoaren 2ra arte.

## Hobariak

Familien diru sarreraren arabera ordaindu behar da matrikula. Udalak lau errenta tarte eta hobariak zehaztu ditu. Azken horien dako eskariak martxoaren 8tik 11ra eskatu ahal dira udaletxean errenta aitortpena aurkeztuz.

## » Lakuntza

## Teresa Aretaren 100 urteak

Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkinen eta Iruñeko alkate Joseba Asironen oroigarriak jaso zituen

Otsailaren 17an 100 urte bete zituen Teresa Aretak. Zabalzan jaioa, Gregorio Aretarekin ezkondu eta Lakuntzan bizi izan zen. Bost seme-alaba izan zituen eta egun, horietako batekin bizi da, Iruñean. 10 biloba eta 7 birbiloba dauka. Teresak 100 urteak pozik ospa-

tu zituen, familiarekin. Prentsa irakurtzea eta irratia entzutea gustuko zituela aitortu zien bisitari. Egun seinatutako bisita asko jaso zituen, tartean Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkin eta Jabier Ardaiz zinegotzia eta Iruñeko alkate Joseba Asiron. Asironen lore sorta eta Iruñeko armarrira duen orratza oparitu zizkion, eta Patxi Xabier Razkinek Lakun-



Teresa Aretak Iruñeko eta Lakuntzako alkateen bisita jaso zuen. UTZITAKOIA

tzako pikotaren erreproduktzioa. Ospakizuna borobiltzeko bazkal-

tzera joan zen Teresa, senitateko koez lagunduta.

## » Bakaiku



## Kamarroak bete-bete

Bakaikuko inauteria berreskuratu zela 20 urte bete zirenean, sekula baino kamarro gehiago elkartu ziren, segizio animatua osatuz. Kamarroek, zigorrak aldean, bidean opatzen zituzten guztiak belau-

netik behera ederkiki berotu zituzten. Berritoren ere ereintza irudikatu zuten, hiruren artean golda eramanez (bi tiraka eta bestea gidatzen) eta beste batek suko hautsa barratu zuten. Argazki gehiago: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## » Olatzagutia



## Hiri inauteri animatua

Hiri inauterian estreinakoz gurdia lehiaketa izan zen. Zazpi gurdia aurkeztu ziren. Epailak haiek begira zeudela euren lanaren zailtasuna nabarmendu zuten. Bisari eman beharrean zeuden eta, aurrena (200 euro), Pacha-ran gurdien egileei eman zieten. Afro-ame-

rikar ilea eta diskoteka aldean zutela, hala gozatu zuten inauteriaz. Koreografia eta guzti. Bigarren saria (100 euro) bi gurdien artean banatu zuten: Flower Power aldarrikatzen zuena eta oktober-festa Olatzagutiara ekarri zutenena. Argazki gehiago: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## » Altsasu

**Udal lanetarako 8 langile kontratatzeko prozedura martxan**

**Ezinbestekoa da enplegu bulegoan langabetu gisa izena emanda izatea. Gainera, deialdiko zein postutan interesa duen astelehena baino lehen esan beharra dago**

Altsasuko Udalak zortzi pertsona sei hilabetez kontratatuko ditu honako postuak betetzeko: 2. mailako margolari ofiziala eta peoi bana, 2. mailako bi kisugil ofizial eta peoi bat, 1. mailako zurgin ofiziala, baso lanetarako 2. mailako ofiziala eta garbiketara lanetarako peoia. Azken postu horretan aritzeko eskolatze ziurtagiria eskatzen da, gainontze-koetarako OHO edo parekoa.

**BALDINTZAK**

Aurreko hiru hilabeteetan udalaren antzeko deialdi batean kontratuak izan direnek ezin izanen dute deialdi-aurkeztu. Postu bakoitzerako eskatzen diren baldintzak betetzea ezinbestekoa izanen da. Peoi posturako aurkezten diren kasuan Gizarteratze Errenta edo Soziolab-rala jasotzea kontuan hartuko da. Izena ematen dutenen artean Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lehen aukeraketa bat egingen du. Horien berri udalari jakinaraziko dio eta hark hautaketa probak egingen ditu. Gainera, euskara ezagutza kontuan izanen da. Berdintasun Batzordeak hala eskatuta kontratatuen erdiak emakumezkoak izateko ahalegina egingen da. Zortzi langileen kontratazioak martxoan egingen dira. Kontratazio horiekin udalaren brigadan duen langile premia estali nahi du eta, bide batez, finantza-krisiaren ondorioz sortutako langabeziaren kontra egin nahi du. Udalak 106.608 euro bideratuko ditu kontratu horiek egiteko eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 47.952 euroko diru-laguntza jasoko du.

## » Uharte Arakil

**Heldu den astean zabalduko da haur eskolako matrikulazioa**

Uharte Arakilgo Udalak jakinarazi du Pausoka haur eskolan izena emateko epea martxoaren 1etik 16ra zabalik egonen dela. Izena ematea astegunetan udaletxean, 10:00etatik 14:00etara, egin daiteke edo 948 464 06 telefonora hots eginez. Matrikula tasa errentaren arabera da. Pausokak 0 eta 3 urte arteko haurrei euskarazko heziketa eskaintzen die. Astegunetan dago zabalik, 8:30etik 15:30era eta jantoki zerbitzua eskaintzen du. Eskaintak plazak beteko balira eta izena emandako Uharteko haurren bat plazarik gabe geldituko balitz Arbizuko Kattuka haur eskolan aritzeko aukera luke. Izan ere, udal ordezkariak halakorik gertatuz gero Lakuntzako eta Arbizuko udalekin hitzarmena sinatuko luke gastuen parte bat finantzatzeko.

+www.guaixe.eus

## » SAKANA



Behatokiaren aurreko bilera bat. ARTXIBOA

**Aurki bilduko da Sakanako Sozioekonomia Behatokia**

**Sakanako garapenarekin ardura duten eragileei bilerarako gonbitea egin zaie, ordezkariak izendatu eta haren kontaktua (telefonoa eta e-posta) imanterola@sakanagaratzen.com helbidera martxoaren 7a baino lehen bidaltzea eskatzearekin batera**

Sakanako Mankomunitateak, Cederna-Garalurrek, Sakanako Garapen Agentziak eta Sakantzen Sareak aurki Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren (SSB) bilera deituko dute. Horregatik, ibarreko eragileei gonbitea luzatu diete. Behatokiaren sustatzaileek azaldu dutenez, "gaur egun, sozioekonomia aldaketak oso azkar ematen direla kontuan harturik, gure-

an abian jarri dugunaren antzeko Tokiko Garapen prozesuek egoera aldakorretara moldatzeko ahalmena ezinbestekoa dute".

Sakanako Plan Estrategikoa onartuta eta indarrean dagoela, SSBko sustatzaileek "nahitaezkoa" jo dute "egindako lanaren inguruko hausnarketa sakona egitea: egindakotik ikasiz, akatsak zuzenduz eta etorkizunari zuzen begiratuz". Ziurtatu dutenez, "Sakanako Plan Estrategikoaren arrakasta hein handi batean jarraipenari lotua dago". SSBk aurki egingen dituen bileran parte hartzeko gonbitea zabaldu dute.

**Sakanako Sozioekonomia Behatokia****Zeinek osatzen dute?**

Udaletako eta Mankomunitateko ordezkariak, alderdi politikoak, sindikatuak, enpresetako ordezkariak, hezkuntzako eragileak, gizarte zerbitzuak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta elkarte sozioekonomikoak.

**Zein dira bere funtzioak?**

Sakanako sozioekonomia gara-

penaren inguruko hausnarketak egitea, plan estrategikoaren ebaluazioa egitea, ekintza lerroen moldaketa edo berrien proposamena egitea eta instituzioei txostenak eta proposamenak luzatzea.

**Zenbatero biltzen da?**

Gutxienez urtean behin, aurreko urteko ekintzak baloratu eta urte horretako lan proposamena onartzeko. Behatokia osatzen duten eragileen eskariz, gehiagotan biltzeko aukera legoke.

## » Urdiain

**Gai ugari landuko dira herri batzarrean**

Bihar, larunbatean, 11:30ean

Urdiaingo Udalak herri batzarra deitu du bihar, larunbatean, goizeko 11:30ean herriaren etxeko auzoan. Urdiaindarrei udaleko eta herriko hainbat gaien berri eman nahi die Udalak. Ondoko gaiak landuko dira: 2015eko aurrekontuak eta urteko laburpena, hirigintza plana, Bentako etxea, 2016ko aurrekontua, 2016rako egitasmoak, Sakanako Plan Estrategikoa eta kanposantua. Bukarera eskaera eta galderen txanda zabalduko da.

## » SAKANA

**Kutxazainetan, euskaraz**

Egunerokoan ohiko tresna bihurtu zaizkigu kutxa eta bankuetako kutxazainak. Makina bat eragiketa egiten ditugu haien bidez. Baina zein hizkuntzatan? Nork bere txartelean kutxazainarekin zein hizkuntza erabili nahi duen zehazteko aukera du. Egiterakoan eskatu daiteke hori edo, ondoren, kutxazainean aldatu.

Laboral Kutxako Euskara Departamentuak Hego Euskal Herriko bere sareko 261 bulegoetan joan den urtean egin ziren eragiketa guztiak zein hizkuntzatan egin ziren aztertu du. Hona kutxak Sakanan dituen lau kutxazainen emaitzak.

**Hego Euskal Herria (261 bulego)**

Herria	% erabilera 2015ean
1. Antzuola	41,34
2. Usurbil	41,07
3. Etxarri Aranatz	37,27
36. Lakuntza	23,56
53. Irurtzun	19,72
59. Altsasu	18,94

**Nafarroa (47 bulego)**

Herria	% erabilera 2015ean
1. Etxarri Aranatz	37,27
7. Lakuntza	23,56
8. Irurtzun	19,72
9. Altsasu	18,94

**Dekalogoko 10 puntuak**

1. Hitz egin euskaraz leku guztietan. Hitz egiten den hizkuntza da bizirik dagoen hizkuntza.
2. Erakutsi eta hitz egin euskara seme-alabei. Transmitzen diren hizkuntzak dira bizi ohi direnak.
3. Hitz egin euskaraz ahal duzun guztietan, eta eskaini euskaraz egiteko aukera etorri berriei eta ikasten ari direnei.
4. Errespetatu eta baloratu itzazu hizkuntza guztiak, eta aldarrikatu eskubide bera euskararentzat.
5. Aitortu eta estimatu euskalki guztiak. Aniztasuna baita hizkuntzen aberastasuna.
6. Euskaraz egokian hitz egin ezazu. Eredua zara haurrentzat eta ikasten ari direnentzat.
7. Babes itzazu euskarazko hedabideak, eta kontsumitu euskaraz etiketatutako produktuak.
8. Gozatu euskarazko kultur produktuekin (literatura, zinema, antzerkia, musika...) eta ezagutarazi lagun artean.
9. Euskaraz aritu sare sozialean ere. Horrela, euskaldun agertuko zara mundura.
10. Aldarrikatu zure hizkuntza eskubideak, eta euskarazko zerbitzua nahi duzula nabarmendu. Zure eskubidea da.

**kaxeta**

liburudenda / paperdenda

Zure bertako opari denda



Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

&gt;&gt; Irurtzun / Arakil

# Prekarietatearen kontra korrika

**Irurtzundarrek txaloekin hartu zuten correscales, hainbatek aldarrikapen lasterketarekin bat egin**

Bilbo eta Batzelona arteko 800 km-ak korrika egin ondoren, Correscales astelehenean despeditu zen. Joan den urtean hiru hilabetez greba egin zuten Telefonikako azpi-kontratetako langileek antolatuta zuten. Ekimenaren helburuak ziren: "multinazional guztiek inposatzen dituzten lan prekarietatea salatzea, mision bizi arazten baitigu".

Joan den urteko grebari eusteko erresistentzia kutxa sortu zuten, baita zorra ere. Prekarietatearen kontrako lasterketak harri aurre egiteko dirua biltzea zuen helburu. 90.000 euro biltzea aurreikusitako zuten eta 120.000tik gora jaso dituzte. Kopurua handitu daiteke, martxoaren 15era arteko epea baitaiko ekarpenak egiteko. Zorra pagatzearekin batera, beste borroka batzuetarako erresistentzia kutxa sortzea da asmoa.



Irurtzundarrek lasterketarekin bat egin zuten. MAIALEN HUARTE ARANO

SAKANA

# Aldarrikapenak espetxe atean



UTZITAKOAK

**Euskal presoek sakabanaketa bukatzea, gaixo dauden presoek berehalako etxeratzea, egun indarrean diren salbuespeneko legeak eta kolektiboaren aurka erabiltzen diren zigor molde guztiak indargabetzea eskatu zuten larunbatean**

Dueñasko espetxera martxa egin zuten hiru autobusetan Pirinioetako 40 herritarrek eta 110 sakanadarrek. *Euskal Herria abian, presoak etxera* lelopean, euskal preso politikoak preso dauden Espainiako eta Portugalgo 40 espetxetara martxak antolatu zituen ezker abertzaleak. Sakanako mar-

txistek bidean ez zuten kontrolik opatu, nahiz eta espetxe inguruan haietako bat identifikatu zuten.

Martxistek espetxe inguruan kontzentrazioa egin zuten. Ikurriñak eta euskal presoek Euskal Herri-raztea eskatuz banderolak erakutsi zituzten. Haietako bat globoen bidez aireratu zuten. Espetxean dauden presoek ateratako ikurrina ikusteko aukera izan zuten, eta oihuka komunikatzeko aukera ere izan zuten. Dueñasen Asier Carrera Arenzana etxarriarra dago preso. 18:30ean bueltatu ziren Sakanara.

**Arrazoiak**

Ezker abertzaleak "guztiz premiazko, urgente eta beharrezko" jo du presoek sakabanaketarekin bukatzea. "Presoen, senideen eta lagunen eskubide urraketa larria delako. Euskal Herriak, kalean eta instituzioetan, gehiengo oso zabalez horixe erabaki du. Demokraziaren errespetu gutxienezko aski litzateke, beraz". Larunbatean espetxe atean adierazi zuten, "sakabanaketa eskubideen aurkako gerra-makina da, biolentzia helburu politikoekin erabiltzen jarraitzen duena, esku-


bide asko urratzen dituen".

Horregatik, presoek eskubide politikoak aldarrikatu zituzten: "preso politikoak direlako, kolektiboak bere burua antolatzeke aukera eta bere parte hartze politikoaren gutxienezko baldintzak bermaturik edukitzeko eskubidea dauka". Abian prozesuan presoek ere parte hartzea nahi zutela berretsi zuten. Bestalde, EPPK-ko kideek espetxean gaixo dauden presoekiko elkartasuna adierazteko hainbat protesta ekintza egin zituzten joan den astean.

SAKANA

## Eskola txikien jardunaldia

Ostegunean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean



Alfredo Hoyuelos ihabardarrak Marc Bonasekin batera

Ripolleteko (Bartzelona) El Martinet eskola publikoari buruzko dokumentala egin zuen: *Berdea, Gozoa, Jazza, El Martinei buruzko hiru begirada*. Hoyuelos bera eta El Martineteko eskolako ordezkari bat izanen dira ostegunean Etxarri Aranazten, Sakanako eskola txikiek antolatutako *gure ametsak eskola bihurtuz* jardunaldian. Dokumentala proiektatzearrekin batera, ibarreko eskolek Dumas proiektua aurkeztuko dute eta galde erantzunetarako tartea izanen da.

&gt;&gt; Altsasu

## Txiokan sartzeko

Txioka haur ikastolan 0 eta 3 urte arteko haurrek izena emateko epea zabalik dago. Informazioa jaso edota izena eman nahi dutenek 7:30etik 16:30era handik pasa daitezke edo 948 373023/ 948562951 telefonoetara hots egin dezakete. 3,4,6 edo 8 orduko eskaintza dute eta bakoitzaren arabera kuota ordaintzen da. Jantoki zerbitzua eskaintzen du ere.

SAKANA

## Ikobaltzeta Udalbiltzako zuzendaritzan

Hauteskunde onorengo lehen batzarra izan zuen Udalbiltzak larunbatean. Elkartu ziren udal hautetsiek Hernaniko alkate Luis Intxauspe aukeratu zuten Udalbiltzako lehendakari. Berarekin batera erakundearen zuzendaritzan beste dozena bat hautetsi izanen dira. Gobernu-kide horien artean Etxarri Aranazko zinegotzi Aritz Ikobaltzeta dago. +www.guaixe.eus

&gt;&gt; Altsasu

## Hualdek zinegotzi izateari utzi dio

Unai Hualde Iglesias Geroa Baiko zinegotziak ostegunean utzi zuen kargua, 13 urteren ondoren. Hualdek zinegotzi eta parlamentari karguak hartu zituen garagarrean. Ilbeltzean EA Jren Nafarroako presidente izendatu zuten eta ondorioz alderdiaren Euskadi Buru Batzarreko kide ere. Languztiei ezin zien behar bezala erantzun eta Hualdek zinegotzi kargua utziko du. Bere lekukoa udalean Julen Diaz Oiarbide hartuko du, Geroa Bairen hauteskunde zerrendan 9. postuan zegoena. +www.guaixe.eus

# Eskatu Nafarroako olioia

**Eskutik eskura kanpainarekin bertako produktuen kontsumoa sustatu nahi da. Martxoaren 2ra arte eskatu daiteke Nafarroako hegoaldeko oliba olioia, ohiko tokietan**

Errigorak hirugarren urtez jarraian *Nafarroa hegoaldeko uzta eskutik eskura* ekimena jarri du martxan. Kanpaina honen bidez Nafarroako hegoaldeko nekazari eta ekoizleak lagundu nahi dituzte. Kalitateko produktuak zabaltea da asmoa, beti ere, ekoizle eta kontsumitzaileendako egokiak diren prezioekin. Horrela, Nafarroako Hegoaldeko oliba olio birjina estra ekoizleetatik zuzenera etxetara ekartzeko kanpaina martxan jarri da. Bi produkturen arte-

an aukeratu daiteke: 5 litroko olio birjina estra (22,5 euro) eta 5 litroko olio birjina estra ekologikoa (32 euro). Oliba 4 ekoizle jarriko dute: Cascanteko La Casa del Aceite, Ablitasko kooperatibak, San Isidro del Pinarreko Bardeak eta Arroitzeko Ekolok. Bestalde, maiztean kontserba loteak eskatzeko aukera eskainiko du kanpainak.

2015ean 9.100 olio bidoi banatu ziren ekimen honekin, 45.500 litro. Aurten 70 herri eta hiritan egin da eskaintza.

**Eskaerak**

Web orriaren bidez (www.errigora.eus) edo ohiko tokietan eskatuteke. Altsasun ondoko tokietan

jarri dira zerrendak: Iñigo Aritza ikastolan, AEKko Itxesi Euskaltegian, Biltokin eta Portukon. Etxarri Aranazten Karikestun, Uda-berrin eta jubilatuen elkarteetan daude zerrendak, eta betetako eskuorriak Kaxetan eta Portuko okindegian utzi behar dira. Martxoaren 1ean jasoko dira zerrendak, eta baita Sakanako beste herrietan jarritako beste zerrenda guztiak ere.

**Oliba jasotzeko**

Oliba Etxarri Aranazten eta Altsasun jasoko da. Etxarri Aranazten martxoaren 11n, udaletxeko estalopean, Belexe irratia iren ondoan, 10:00etatik 12:00etara eta 18:00eta-



tik 20:00etara. Orduan egin behar da ordainketa. Altsasun zehazteke dago.



## SAKANA

**Koordinazio taldea sortu dute Altsasuko Udalak, gizarte zerbitzuak, osasun etxeak eta Udaltzaingoak-Foruziangoak. Jardunaldi baten bidez Sakanako eragileei koordinazio lan esparru horren berri eman diote**

Altsasuko Udalak emakumeen kontrako indarkeria, arreta koordinatua jardunaldia antolatu zuen asteazkenean. Udaleko Berdintasun teknikari Idoia Goikoetxea Gomezek azaldu digunez, "jardunaldiaren helburua indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta gero eta hobe, koordinatua eta integratua ematea zen". Horregatik, Sakanako hezkuntza, udal, gizarte zerbitzu eta osasun arloko profesionalak eta zenbait herritarrek parte hartu zuten, 45 bat.

Pilar Baigorri Lerga Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren atalburua eta Txaro Zabal Saenz atal bereko teknikaria jardunaldian izan ziren. Nafarroako koordinazio moduaren eta dauden baliabideen berri eman zuten jardunaldian.

Arantza Bengoetxea Intxaustik, Altsasuko Udalaren Emakume eta Berdintasunaren Batzordeko lehendakaria, gogorarazi zuenez, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriarako arreta eta aurreneurriak koordinatzeko erakundearen arteko aurreneko akordioa indarrean dago. "Baina askotan ikusten dugu ez dela ongi ezagutzen eta ez dakigula nola jokatu behar dugun gure herrietan".

**Bi ekimen berri**

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka Nafarroan egiten

# Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka, koordinazioa



Txaro Zabal Saenz, Pilar Baigorri Lerga eta Arantza Bengoetxea Intxausti. UTZITAKOIA

den eragileen arteko koordinazio lanaren parekoa egiten da Altsasun. Udala, gizarte zerbitzuak, osasun etxea eta Udaltzaingoaren bidez Foruziangoa koordinatuki ari dira. Koordinazio Taldea sortu zuten joan den urtean. Bengoetxeak azaldu zuenez, "dauden baliabideen berri partekatu eta indarkeria egoeretatik emakumei ateratzen lagunduko dieten jokatibideak zehazten ari dira". Bengoetxeak jardunaldian parte hartu zutenei "indarkeria atzematean" taldearekin harremanetan jartzeko aukera eskaini zien. Jardunaldia bera talde horren lehen ekimena izan da.

Bengoetxeak, bestalde, jakinarazi zuen berriki indarkeria egoerak gaituzten emakumeekin talde bat osatu dutela. "Helburua indarkeria pairatzen ari diren emakumei laguntza ematea da. Haien parte hartzerik gabe lana hanka-motz gelditzen da". Esperientzia berri hori taldea osatzen duten emakumeen akordio eta eskaeren arabera garatuko eta batzordetik koordinatuko da.

**Emakumearen Batzordea**

Altsasuko Udalak 1992an sortu zuen batzordea. Hasieratik bi lan ildo ditu. Batetik, emakumeengana indarkeria ezabatu nahi dute.

Gizartean eragina duten sentsibilizazioa, trebakuntza, hezkuntza eta prebentzioa ekimenak sustatzen dira hainbat eragilerekin elkarlanean (tailerrak, kanpainak, programak, udal adierazpenak, bandoak...). Azken helburua emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzea da, "hori baita indarkeria desagertzeko bide bakarra".

Batzordearen bigarren lan ildo indarkeria jasaten duten emakumeen egoera hobetzea da. Egoera horretan dauden emakumeekin bakarka lan egiten da, haiei arreta hobe eta indarkeria egoeratik ateratzean konpainia egiteko. Ben-

**53 kontsulta**

Altsasuko Udalaren emakumeendako aholkularitza juridiko zerbitzuak 34 emakumeren 53 kontsulta jaso zituen joan den urtean. Haietatik 8 emakumek genero indarkeria salatu dute eta 4k indarkeria bizi dutela kontatu dute, salatu gabe. Aholkularitza erabili duten 24 emakume altsasuarrak dira, 5 olaztiar, 3 urdiaindar eta arbizuar eta etxarriar bana.

**112 telefonoa**

Indarkeria egoera bizi duen emakumeak telefono horretara hots egin eta hainbat arlotako profesionalak lan koordinatua hasten dute.

goetxeak segitzen dituzten irizpideak zerrendatu zituen: errespetuan eta babesean oinarritutako jarduerak; genero ikuspegitik egin; erantzun integral eta koordinatua; berriro biktimak ez bihurtzeko neurriak eta profesionalen trebakuntza. Zinegotziak azpimarratu zuenez, "emakumeengandako indarkeriaren kontrako Altsasuko Udalaren jarduna berdintasun arlotik zuzentzen da".

**Eskaera >**

Pilar Baigorri Lerga herrian zegoela baliatuta Altsasuko Udaleko Emakume eta Berdintasun Batzordeko presidente Arantza Bengoetxea Intxaustik eskaera egin zion: genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko ekipo berriak Altsasu eta Sakanako bere barruan hartzea. Ekipo horiek genero indarkerian trebatuak daude eta gizarte zerbitzuei hainbat arlotan laguntza ematen diete, errefortzua.

Legearen arabera halako ekipoak Nafarroa guztian egon beharko lukete, baina gaur egun Tuteran eta Lizarran besterik ez daude. Nafarroako Gobernuari eusten dioten lau alderdien programa-akordioak ekipoak herrialde guztira zabaltzea aurreikusten da. Nafarroako Berdintasun Institutua ekipo berri bat martxan jartzeko lanean ari da gaur egun, kokapena eta baldintzak zehazten. Horregatik, Bengoetxeak Baigorrii eskaera aurrez aurre egin zion.

**Erronka**

"Sakanako emakumeek dauden zerbitzuen berri jakitea eta indarkeria kasuetan nora joan daitezkeen jakitea da erronka". Halauste du Goikoetxeak. "Larrialdi egoeretan protokoloak oso ongi funtzionatzendu. 112 telefonoa hordago". Goikoetxeak azaldu digunez, "Sakanako kasu gehienak urteetan indarkeriarekin jasaten ari diren emakumeenak dira. Horiek ez dute 112ra hots egin, ez dute polizia jotzen. Horregatik, garrantzitsua da emakumeek dauden zerbitzuen eskaintza zein den ezagutzea".

**Sorgiñak**  
taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Asteleheneetik ostiralera  
**Eguneko menua 9€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

**Txooootx!**

**JUANLUZENEAK**  
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE  
txotx denboraldia zabalik

ODERITZ  
948 604 571 | 680 652 183

Ogiaren artisaunak

**PORTUKO** okindegia

ETXARRIARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)

## Pedro Fernandez Urdangarain

Eskertu nahi dizuegu momentu triste hauetan, gure ondoan egon zareten guztiei.

Laster arte.

**Zure familia**

Iturmendi.



## Belen Merino Cadarso

Martxoak 3, X. urteurrena

## Alberto Lacalle Alzate

Otsailak 28, I. urteurrena

Beti gure bihotzetan.

**Etxekoak**



**Oroigarriak egiten ditugu**

**Nahi duzun argazki eta testuarekin**

**GUAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
[argi@guaixe.eus](mailto:argi@guaixe.eus)



## Joxe Ignazio Gurutxarri

III. urteurrena

Gure izatearen testigu zuzena, makurtu gabeko zuhaitz sendoa, desertuko haizeak lehortu ez duen lorea, itsasoaren kolorea, hor zaude zu.

**Zue fameliye**

## Elbira Goikoetxea Galartza

(Mikel Agirre Goikoetxea  
Iñigo Aritza ikastolako irakaslearen ama)

Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela oraindik ere geroan.



**Iñigo Aritza ikastolako guraso, ikasle eta langileak**



# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
Argazki bakoitzeko 3€.

Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.eus](mailto:zorian@guaixe.eus)

### Lana/ Negozioak

#### LAN ESKAINTZA

Euskara irakaslea behar dut Hezkuntza Eskolako goi-mailako azterketa prestatzeko. Interesatuak martxoaren 4an, arratsaldeko 19:00etan elkarteko bulegoan agertu beharko dira. Informazio gehiago edo zalantzak argitzeko 619 08 67 14 telefonora deitu.

#### Iturmendiko Aritza Elkartearen garbitzeko pertsona bat (edo gehiago) behar dugu.

Urtebeteko kontratua eskaintzen dugu. Interesatuak martxoaren 4an, arratsaldeko 19:00etan elkarteko bulegoan agertu beharko dira. Informazio gehiago edo zalantzak argitzeko 619 08 67 14 telefonora deitu.

**Iñaki oinetakoak.** Etxarri Aranazen negozioa eskualdatzen da. Tel 649 33 18 43.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

**SALGAI**

Pisua salgai Etxarri Aranazten. 84 m<sup>2</sup> erabilgarririk, berritua, eguzkitsua, 3 logela, komuna, egongela, sukalea, trasteleku bat pisuan bertan, berogailua. 72.000 €. Tel 654 23 41 02.

### Galdutakoak / opatutakoak

#### OPATUTAKOAK

**Artilezko txano grisa opatu dugu,** otsailaren 17an, Altsasuko Gartzia Ximenez kalean.

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galduta-**

**ko gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

### Ikastaroak

**Udako Euskal Unibertsitateak (UEU).** Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)

### Oharrak

**Amalur Montessori Haur Eskola.** Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta [amalur@amalurelkarrea.org](mailto:amalur@amalurelkarrea.org)

**EGA prestatzen lagunduko dizut ingelesarekin laguntzen badidazu.** Tel 634 42 29 74.

**Irurtzungo irakurle taldea.** "La madre" - Maximo Gorki. Martxoaren 3an, 18:00etan libururtegia.

**Kafe tertulia.** "Mugimenduaren garapenaren monografikoa" ren emanaldia. Haur bat duzu? Haurdun zaude? Mugimendu libreaz, zerbait entzun duzu? Gaiak gehiago jakin nahi baduzu,

martxoaren 7an, arratsaldeko 17:00etan Kattuka Haur Eskolan. Gonbidatuta zaude.

**Etxarriko irakurle taldea.** Martxoaren 10ean, ostegunean, 19:00etan libururtegia elkartuko da Lourdes Oñaederraren "Babes bila" liburuz hizketzeko.

**Kafe tertulia.** "Haurren negarri arreta eskaini, maitasuna eta errespetua". Zergatik eta zertarako egiten dute negar haurrek? Zer adierazi nahi dute negararen bidez? Nolako da malkoen hizkuntza? Hizlaria: Alfredo Hoyuelos, Filosofia eta Hezkuntza Zientzia europar doktoretzaduna. Martxoaren 16an, 17:00etan Kattuka Haur Eskolan.

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

**Lamias, Nafarroako Emakume Gazteak.** Atzerrian dauden Estatu Españoleko gazteendako kompetentzia digitalak on line eta doan ikasteko aukera. Prestakuntza-programa 2016ko martxoaren 7an hasiko da eta bukatu ekainaren 5ean, 140 ordu izanen dira. Plaza mugatuak. Argibide gehiago: [formacion@mujeresjovenes.org](mailto:formacion@mujeresjovenes.org). Izen ematea: <http://ow.ly/Xgg9Y>

**Benigno omentzeko auzolana.** Apirillean egun osoko omenaldia egingen da Urdiainen.

Proiekturako den ikusentzunezkoa egiteko argazkiak behar dira. Baita egunean bertan lan egiteko. Harremanetarako: [benignolagunak@gmail.com](mailto:benignolagunak@gmail.com)

**Berria Beka.** Berria Hedabideen Fundazioak, Berria Taldearen eta Laboral Kutxaren laguntzaz, Berria bekaren hirugarren aldirako deialdia egin du, euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxan jartzeko. Proiektuak 2016ko apirilaren 1erako aurkeztu beharko dira eta proiektu irabazleak 12.000 euroko laguntza jasoko du proiektua martxan jartzeko.

**Lakuntzako elkartasun zozketa.** Zerbaki sari-tuak, hauek dira: Egur berogailua, 1244; Gurutz saskia, 828; Brindi saria, 681; Eder saskia, 2393; ardo loteak, 121, 1886 eta 2376.

**GoiEner Iruñean.** Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon

### JAIOTZAK

• **Nahia Mosqueira Marin,** otsailaren 12an Dorraon.

### HERIOTZAK

• **Jose Luis Otxoa-Aizpurua** irasuegi, otsailaren 16an Altsasun.  
• **Julita Arregi Arregi,** otsailaren 18an Lakuntzan.  
• **Pedro Fernandez Urdangarin,** otsailaren 19an Iturmendin.  
• **Elvira Goikoetxea Galarza,** otsailaren 21ean Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

## TXIRRINDULARITZA

**JUNIORRAK ETA AFIZIONATUAK ERREPI-  
DERA:** Asteburuan hasiko dute denboral-  
dia juniorrek eta afizionatuek. Juniorrek

igandean dute lasterketa Villatuertan,  
11:00etan (78 km) eta afizionatuek larun-  
batean, 10:00etan, Zumaian (112,5 km).

## Mendia

Galdeano-Lokiz-  
Ganuzak Sakanako  
Mendizaleekin

Igandean, 7:30ean Olatzagutiatik  
abiatuko da autobusa

Sakanako Mendizaleak taldeak igan-  
dean mendia ibilaldia antolatu du. Liza-  
rraldean ibiliko dira gure mendizale-  
ak. Galdeanotik abiatuta, Lokiz igo  
eta ondoren Ganuzan despedituko  
dute bidea. Autobusa goizeko 7:30ean  
abiatuko da Olatzagutiatik, herriz herri mendizaleak hartuz. Izena ematea ohi-  
ko tokietan egin behar da edo, bes-  
tela, 639 11 76 31 telefonoan.

Nafarroako Mendi  
Federazioaren galan  
sakandarrak sarituta

Ostiralean Nafarroako Mendi Fede-  
razioarengala hartu zuen Civicanek.  
Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketako sarietan, Mikel Rubio mendi korrikalari irurtzundarrak prome-  
sen mailako saria jaso zuen. Bestalde, Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Sarietan rutasnavarra.com taldeko Juanjo Aranburuk jaso zuen lehen saria. Hirugarrena Sutegi Klube-  
ko Jose Antonio Gastaminza izan zen, eta laugarrena Dantzalekuko Javier Ignacio Gonzalez.

## Kiroldegia

Eman izena  
desfibriladore  
ikastaroan

Apirilaren 25ean eta 26an izanen da,  
Irurtzunen

Sakanako Mankomunitateak, CEIM eta Irurtzungo Udalaren laguntzarekin, desfibriladore ikastaroa antolatu du apirilaren 25ean eta 26an Irurtzungo Kultur Etxean. Ikastaroa sorosleei, udal langileei, irakasleei eta lehen sorospenetan interesa daukaten guztiei zuzenduta dago. Guztira 8 orduko ikastaroa izango da. Apirilaren 25ean 16:30etik 20:30era ariko dira, eta apirilaren 26an ordutegi berean. Edukiari dagokionez, bihotz birrikietako erreanimazioa, bizitza arriskuan jartzen duten egoerak - itotzea, epilepsia krisiak, bihotzekoak... - eta desfibriladorearen erabilera aztertuko dituzte. Ikasleek ikastaroa egin izanaren ziurtagiria jasoko dute.

## IZENA EMATEA

Apirilaren 14ra arte eman daiteke izena Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.eus) edo Irurtzungo Kultur Etxean (948 600 412). Prezioa: 20 euro. Gehienez 24 parte-hartzaile onartuko dira. Izena eman ahala tokiak betetzen joango dira eta beharrezkoa bada itxaron zerrenda egongo da.

## Duatloia

VII. Altsasu Duatloiarekin,  
denboraldia abian

Goizeko 10:30ean Nafar Kirol Jolasen Duatloi probaren txanda izango da, eta 15:45ean nagusien proba jokatu da

Inoiz baino goizago iritsi zaigu Altsasuko Duatloia. Bihar jokatu da, otsailaren 27an, larunbatean. Sakana Triatloi Taldeak hainbat entitate eta babesleen laguntzarekin antolatutako VII. Altsasuko Duatloia. Goizean, 10:30ean, kategoria txikikoak ariko dira lehian, Nafar Kirol Jokoetarako (NKJ) baliagarria den proban, eta arratsaldean, 15:45ean, proba nagusia jokatu da -15:45ean emakumezkoak eta 16:00etan gizonezkoak. VII. Altsasuko Duatloia, aldi berean, Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa izango da.

“Aurten inoiz baino lehenago jokatu da proba. Egutegia bete dago eta ez dago beste datarik. Eguraldiak kezkatzen gaitu gehien. Eurria da okerrera, umeendako bereziki, goizeko 10:30ean hasten direlako. Baina gogoz gaude denboraldia hasteko. Egutegia hasi berri da eta martxan gaude, ez dago aitzakiarik. Altsasukoarekin abiatuko da Nafarroako duatloi denboraldia, lastailera arte” azaldu zuen Sakana Triatloi Taldeko presidentea Mikel Lakuntzak aurreko larunbatean, Zelandi kiroldegian burututako taldearen aurkezpenean.

Zirkuituari dagokionez, aurreko urteko zirkuitu bera da biharko lasterketarako antolatu dutena. “Antolakuntzaren aldetik ziurtasuna ematen digu, dena kontrolatuta dugulako. Eta kategoria txiki-koen kasuan ere haurrek ziurtasun hori dute, badakite non jokatu den eta ez dira horren urduri ego-



Atzera ere eguraldi kaxkarrari aurre egin beharko zaio Altsasun.

ten” gaineratu zuen Lakuntzak.

## 10:30ean kategoria txikikoak, Txikian

Kategoria txikikoak Txioika haur ikastolaren inguruetan prestatutako zirkuituan lehiatuko dira, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria izango den proban. Aurrebenjaminak 10:30ean hasiko dira, benjaminak 10:50ean, kimuak 11:30ean eta haurrak 12:00etan. Juniorrek eta kadeteek helduen proban parte hartuko dute.

## 15:45ean helduak: 5 km-22 km-2,5 km

VII. Altsasuko Duatloia arratsaldeko 15:45ean abiatuko da Foru Pla-

zatik. 15:45ean emakumezkoak abiatuko dira eta 16:00etan gizonezkoak. Duatletek Altsasuko herri gunean prestatutako 2,5 km-ko zirkuituari bi bira eman beharko diote korrika, segidan Iortia Kultur Gunearen aurrean dauden boxetan, trantsizio gunean, bizikleta hartu eta 22 km-ko distantzia osatzeko. Hasieran, Olatziraino joko dute; Urbasako portua igotzen hasi, eta Altamirako bidegurutzean behar bidea hartuko dute, Altamira jaitsiz. Altsasuzeharkatuta NA-1000 errepidean aurrera egingo dute, Zegama Ortzaurteko bidegurutzera. Bertan buelta osoa hartuko dute, Altsasuko boxetara joan arte.

www.navarratriathlon.com

Izena ematea eta probaren informazio guztia. Informazio gehiago www.sakanatri.com web gunean.

## Sariak

**Lehen gizonezko eta emakumezkoak:** Produktu Iteak + garaikurra

**Bigarren gizonezko eta emakumezkoak:** Garaikurra

**Hirugarren gizonezko eta emakumezkoak:** Garaikurra

**Lehen kadeteak, lehen juniorrak, lehen 23 urtez azpikoak, lehen beteranoak eta lehen sakandarrak** (gizonak eta emakumeak) trofeoa jasoko dute. Talde onenak saria jasoko du.

Juan Luis Maiza XI.  
Sopelako Duatloian

Larunbatean jokatu zen XI. Sopelako Duatloia (5 km korrika, 20 km bizikletan eta 2,5 km korrika). Kepa Vallejo (55:56) eta Maite Arraiza (1:07:49) izan ziren azkarrenak. Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza eta Xarriarra 56. sailkatu zen (1:01:32).

Bukatzeke, bizikleta utzi eta 2,5 km-ko zirkuituari bira bat eman beharko diote korrika, Foru plazako helmugara iristeko.

Aurreko urtean eguraldi oso desatsegina izan zen eta guztira 109 duatleta aritu ziren proba nagusian eta Raul Amatriain eta Ana Casares izan ziren azkarrenak. Atzo Guaixeko erredakzioa itxerakoan Nafar Kirol Jolasetan 94 duatleta eta helduen proban 142 duatleta zeuden izena emanda.

## Irristaketa

## Olazti, Nafarroako irristalarien bilgune

Bihar, larunbatean, Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako 4. Indoor proba hartuko du Olaztiko kiroldegia, 10:00etan

Abian dira Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako Indoor probak. Dagoeneko 3 proba jokatu dira, eta bihar, larunbatean, laugarrena jokatu da, Olaztiko Erburua kiroldegian. Sakana Irristaketa Taldeak edo Patin Sakana Irristaketa taldeak antolatuko du proba, Nafarroako Irristaketa Federazioaren laguntzarekin eta hainbat babesleren laguntzarekin.

Aurreko urtean ere aipatu txapelketako jardunaldia hartu zuen Olaztik eta 300 irristalari inguru bildu ziren. Ekitaldi arrakastatsua izan zen, Sakana Irrista-

keta Taldeak antolakuntza bikaina egin zuelako, ikusle ugari bertaratu zirelako eta guztia ongi atara zelako. Esperientzia positibo hori aintzat hartuta, aurten ere Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketa Olaztira ekartzeko apustua egin du Patin Sakana Irristaketa taldeak. Ez da erreza halako probak Sakanara ekartzea eta, horregatik, irristaketa sustatu eta bertara gerturatzea gonbidatu du taldeak, irristaketaekin gozatzeko.

Goizeko 10:00etan Txikien Ligako probak abiatuko dira -miniak, aurrebenjaminak, benjaminak eta kimuak- eta 12:00etatik aurrera Helduen Ligakoak -haurrak, jubenilak, juniorrak eta seniorrak-



Bihar Olaztin 300 irristalari inguru espero dira.

Azken horiek tartean amerikar erreleboak egin beharko dituzte.

Sakana Irristaketa Taldekoak ere bertan lehiatuko dira.

## Herri kirolak

# Hasi da herri kirol festa

**Nafarroako Herri Kirol Jokoetako lehen jardunaldia jokatu zen igandean Iruritan. Sakanako taldeak bikain aritu ziren**

Iruritik hartu zuen, igandean, Nafarroako Herri Kirol Jokoetako lehenengo jardunaldia. Nafarroako Herri Kirol Federazioak Kirol eta Gazteria Institutuarekin batera antolatzen dituen jokoetan, parte-hartzaileak hiru kategorietan banatuta aritzen dira: kimuen mailan (11-12 urte), haurren mailan (13-14 urte) eta kadeteen mailan (15-16 urte). Kategoria guztiak herri kirol proba konbinatueta aritu ziren eta, horretaz aparte, haur eta kadete mailakoak sokatiran ere lehiatu ziren.

Nafarroako Herri Kirol Jokotako parte-hartzea gora doa urtero. Aurten 9 klubetatik sortutako 30 talde ari dira proba konbinatuetan -15 talde kimuetan, 8 haurren mailan eta 7 kadeteetan- eta 13 talde sokatira txapelketan -6 talde haurren mailan eta 7 kadeteetan-.

Tar-tean daude Iñigo Aritza ikastolatik sortutako taldeak -Iñigo Aritza, Aizkorri eta Urbasa- eta Andra Mari ikastolatik sortutakoak: Andra Mari, Ondatz, Beriain, Andia, Leziza eta Utzubar.

Proba konbinatuak Kimuen mailako proba konbinatuan 16 talde lehiatu ziren eta Andra Mari izan zen azkarrena (6:44). Sakanako gainontzeko taldeei dagokienez, Urbasa 5.a sailkatu zen (6:58), Andia 9.a (7:07), Beriain 10.a (7:20), Aizkorri 11.a (7:20) eta Ondatz 13.a (7:31).

Haur mailako proba konbinatuan Basaburua gailendu zen lehiatu ziren 8 taldeen artean (9:14). Andra Mari 3.a izan zen (10:08), Leziza 4.a (10:45), Utzubar 7.a (11:40) eta Iñigo Aritza 8.a (12:19). Kadete mailako konbinatuan, berriz, 7 talde aritu ziren eta Basaburua izan zen azkarrena (10:10), Andra



Iñigo Aritzako tiratzaileak tiraka. UTZITAKOA

Mari bigarrenaren aurretik (10:12). Iñigo Aritza 4.a sailkatu zen (11:57) eta Beriain 5.a (12:13).

## Sokatira

Sokatiran haurren mailan (480 kilo) 6 talde lehiatu ziren bi multzotan banatuta. A multzoan Iñigo Aritza izan zen onena (3 puntu), Lezizaren aurretik (2 puntu). Eta B multzoan Andra Mari gailendu zen (3 puntu). Utzubar hirugarrena izan zen (puntu bat). Eta

kadete mailan (540 kilo) 7 talde lehiatu ziren, bi multzotan. A multzoan Andra Mari lehena sailkatu zen (3 puntu), Iñigo Aritzaren aurretik (2 puntu). Eta B multzoan Basaburua gailendu zen (4 puntu). Beriain laugarrena izan zen (1,5 puntu).

## Igandean, Ororbian

Igandean Nafar Kirol Jolasen bigarren jardunaldia jokatu da Ororbian, goizeko 11:00etan.

## Futbola

### PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

21. JARDUNALDIA

#### BETI CASEDANO 1 - ETXARRI ARANATZ 0 BERIAIN 3 - LAGUN ARTEA 1

Beti Casedano eta Etxarri maila berean aritu ziren, baina Betik aurreratu zen 34. minutuan. Nahiz eta Etxarri behin eta berriz saiatu, ongi defendatu zuten Kasedakoek eta 3 puntuei eustea lortu zuen. Bestalde, Beriain partida hasi eta 3 minututara aurreratu zen. Nahiz eta kontraerasoan jokaldi bikainak sortu, Beriaingo atezainak Lagun Artekoen asmo guztiak zapuztu zituen. Beriainek beste bi gol sartu zituen eta nahiz eta Lagunek bukaeran gol bat sartu, 3 puntuak Beriainen geratu ziren.

Sailkapena >>

1. Gares	41 p
5. Etxarri Aranatz	34 p
6. Lagun Artea	34 p

Asteburuko jardunaldia

**ETXARRI ARANATZ - BURLADES**  
(Igandean, 16:00etan, Etxarri Aranatz)  
**LAGUN ARTEA - SAN JORGE**  
(Igandean, 16:30ean, Lakuntzan)

### ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

21. JARDUNALDIA

**UNIVERSIDAD DE NAVARRA 1 - ALTSASU 2**  
OPUS-eko unibertsitatean jokatu eta partida bizi-bizia izan zen. Bigarren zatia hasi eta berehala aurreratu zen Nafarroako Unibertsitatea, baina 10 minututara Altsasuko Imanolek berdintzea lortu zuen. Partida bukatzean zela Xabierrek garaipena eman zion Altsasuri.

Sailkapena >>

1. Lezkairu	54 p
9. Altsasu	27 p

Asteburuko jardunaldia

**ALTSASU - SALESIANOS**  
(Larunbatean, 16:30ean, Altsasun)

## Futbola

### Sakandarrak Nafarroako Futbol Federazioko asanblada berrian

Nafarroako Futbol Federazioko hauteskundeak egin dituzte egunotan. Rafa del Amo izanen da president berria, sortu den asanblada berriko 50 kideetatik 27ren botoak lortu eta gero. Asanbladako 50 kideen artean Xotako jokalaria Roberto Martil eta erregional mailako Altsasu kluba daude.

## Areto futbola

### Sufrituta irabazi zion Magna Gurpea Xotak Levanteri

Eurokopako geldialdiaren ondoren, Espainiako lehen mailako areto futbol txapelketako 21. jardunaldia jokatu da. Magna Gurpea Xotak eta Levantek lehia oso estua izan zuten eta azkenean, izugarri sufrituta, Iruñean geratu ziren 3 puntuak, talde berdeak 4 eta 3 irabazi eta gero. Jesulito, Carlitos (2) eta Martil izan ziren gogileak. "Sufrituta, baina merezita" irabazi zutela adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak. Sailkapenean, Inter Movistar da liderra (61 puntu) eta Magna Gurpea Xota laugarrena (40 puntu). Igandean sailkapenean 12.a den DLink Zaragozaren kontra jokatu du talde berdeak, 12:00etan, Aragoiko hiriburuan.



## Pala

### Beste txapel bat Aristorenarendako

**Yanira Aristorenak eta Uxue Murillok Nafarroako Trinketeko Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketa irabazi dute**

Etxeko apalategian jartzeko beste txapel bat lortu du Yanira Aristorenak eta Uxue Murillok. Zehazki, Nafarroako Trinketeko Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketa irabazi dute Yanira Aristorenak eta Uxue Murillok (Oberena), final ikusgarrian bere taldekide Izaskun Arrosagarairi eta Rebeka Kontini 30 eta 20 irabazi ondoren.

Hasieran Arrosagarai eta Kontin aurreratu ziren, baina sarea berreskuratu eta berehala Aristorenak eta Uxue Murillok alde ateratzen hasi ziren, 7 eta 3 eta 11 eta 6 aurreratuz. Hala ere, Arrosagarai eta Kontinek 12ra berdintzea lortu zuten, baina atzera ere sarea berreskuratu ondoren tarte handia ateratzea lortu zuten Aristorenak eta Uxue Murillok, eta 20 eta 14 aurreratu



Yanira Aristorena eta Uxue Murillo, txapelekin. UTZITAKOA

ziren. Hortik aurrera partida ongi kudeatzen jakin zuten eta, azkenean, 30 eta 20 irabazita jantzi zuten txapela Aristorenak eta Murillok.

## Pilota



Malerrekako Txapelketako finalista guztiak.

### Bakaikoa eta Lasa Malerrekako txapeldunordeak

**Finalean 22 eta 13 irabazi zieten Labakak eta Tabarrek**

Larunbatean Malerrekako Txapelketako finalak jokatu ziren. Elite mailako finalean Erreka klubean dabilzan Joanes Bakaikoa eta Adur Lasa etxarriarrek

Zazpi Iturriko Peru Labaka eta Errekako Tabar izan zituzten aurkari. Final lehiatuan, Peru Labakak eta Tabarrek 22 eta 13 irabazi zieten Bakaikoari eta Lasari. Txapeldunordeak ditugu, beraz, etxarriarrek.

## >>

### Hauteskundeak errepikatzeko eskatu du Pilota Berria taldeak

**Pozuetak irabazitako hauteskunde prozesua bertan behera uzteko errekurtsioa aurkeztu dute**

Otsailaren 17an Nafarroako Pilota Federazioko hauteskundeak egin ziren. Migel Pozuetaren hautagaitzak irabazi zuen, Pilota Berria hautagaitzari alde handia aterata. Hautagaitza horretan hainbat sakandar daude.

Pilota Berria taldeak komunikatu batean adierazi duenez "hauteskundeen emaitzak onartzen ditugu baina errekurtsioa aurkezteko behartuak ikusten gara. Hauteskundeetan presio, interes eta promesa handiak egon dira, eta beste zenbait kontu, prozesu hau zikindu eta gaiztotu dutenak. Eta egun-

go legediari egokitzen zaion prozesu baten alde egiteko, Nafarroako Pilota Federazioko hauteskunde batzordeari hauteskundeak bertan behera uzteko errekurtsioa aurkezteko erabaki dugu". Federazioak ez badu eskaria onartzen, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuan errekurrituko dute.

Pilota Berriak zehaztu duenez, bi elementu ez dira behar bezala errespetatu, bete beharrekoak zirenak. Euren iritziz asanbladaren ordezkariak ez du bi testamentuen proportzionalitatea errespetatu, teknikari eta epaileen proportzionalitatea, hain zuzen. Eta, bestetik, posta bidezko botoa emateko beharrezko baldintzak ez dira bete.

## Pilota

## Ezkurdia eta Barriola bide onean

## Binakakoa. Saikapena

1.	Irujo-Rezusta	11 puntu
2.	Olaizola II.a-Urrutikoetxea	9 puntu
3.	Bengoetxea VI.a-Untoria	6 puntu
4.	Ezkurdia-Barriola	6 puntu
5.	Artola-Albisu	6 puntu
6.	Berasaluze II.a-Beroiz	5 puntu
7.	Altuna III.a-Merino II.a	3 puntu
8.	Iribarria-Merino	2 puntu

Binakako finalerdietarako sailkatzeko borrokan jarraitzen dute eta Olaizola II.a-Urrutikoetxea dituzte hurrengo arerioak

Binakakohasierako ligaxka despeditzeko bi jardunaldi falta direnean, finalerdietarako sailkatzeko lanak ongi egingen ari dira Joseba Ezkurdia eta Abel Barriola. Ostiralean Retegi Biri eta Merino II.ari 10 eta 22 irabazi zieten, Irungo Urantz frontoi hotzean partida oso serioa egin eta gero. Ezkurdia eta Barriolak 6 puntudituzte, Bengoetxea VI.a-Untoria eta Artola-Albisu bezala, eta Berasaluze II.a-Beroizek 5 puntu. Lau bikote hauek bikote bikote dute finalerdietara sailkatzea Irujo-Rezusta eta Olaizola II.a-Urrutikoetxearekin batera. Beraz, igandean Olaizola II.a eta Urrutikoetxearen kontra irabaztera derrigortuta daude arbizuarra eta leitzarra.



## Binakakoa. 13. jardunaldia

**Berasaluze II.a-Beroiz / Irujo-Rezusta** (ostiralean, 20:30ean, Bilbon. ETB1, ntb)

**Bengoetxea VI.a-Untoria / Retegi Bi-Merino II.a** (larunbatean, 17:45ean, Gasteizen. ETB1, ntb)

**Olaizola II.a-Urrutikoetxea / Ezkurdia-Barriola** (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1, ntb)

**Artola-Albisu / Iribarria-Merino** (astelehenean, 17:00etan, Tolosan)

## Pilota

## Martijaren debut hunkigarria



Julen Martijak Etxeberriko bizilagunen babes zabala izan zuen bere debutean. Argazkian Etxeberriko pilotaria herritarrekin. UTZITAKOIA

**Agurrean murgilduta zegoen Xalarekin batera, 22 eta 21 irabazi zieten Jaunarenari eta Ceciliori, Astelenan**

Igandean Julen Martijak profesionalen debutatu zuen pilotaren katedraletako batean, Eibarko Astelenan. Etxeberriko 18 urteko gazteak Xala izan zuen bikote, Asperekin kontratua despeditu

eta Hegoaldeko frontoietako bere azken partida zuen lapurtarrarekin. Emozio bikoitzeko partida izan zen: Xala bezalako txapeldun handi baten agurra eta Julen Martija hasi berriaren ongietorria.

Martijak babes handia izan zuen. Arakildik bi autobus abiatu ziren Eibarrera, Etxeberriko-

ri sostengua ematera. Eibarren bapo bazkaldu eta gero, giro beroan joan ziren frontoira. Harmailtan Martijaren aldeko pankarta zintzilikatu zuten: "Zaila dena badago lortzea. Eurre Martija!". Xalak ere lagun eta pilotari ugari izan zituen alboan bere agurrean, berarekin Binakako txapelak ira-

bazi dituzten Oscar Lasa eta Aitor Zubieta tarteko. Emozioz betetako partidaren, urduri hasi ziren Xala eta Martija, baina pilota mantsago bati esker partidaren sartzea lortu zuten. Bukaeran, Xalak eta Martijak 22 eta 21 irabazi zieten Jaunarenari eta Ceciliori, Astele- na zutituta zegoela.

## Eskia

## Gozamena Urbasan

**Mank-ek eta Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak taldeak antolatutako ipar eski ibilaldian hiru talde aritu ziren**

Gure mendietan elurra zegoela aprobeztatuz, igandean ipar eski ibilaldia antolatu zuen Sakanako Mankomunitateak Urbasan, Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak taldearen laguntzarekin. Talde horrek astean barna elurra zapatzeko makinekin prestatutako ibilbidea osatu zuten izena eman zuten sakandarrek.

"Igandeko ipar eski ibilaldia luxua izan zen. Urbasak kirol hau egiteko eskaintzen duen leku ederrarenariko izanik, eta Altsasuko Mendigoizaleen Urbasa-Andia

Ipar Eski Lagunak taldeak elurra zapaltzeko egindako lan bikainari esker, ongi gozatu genuen elurraz. Hiru taldean antolatuta ibili ginen. Batzuk Otsoportillo pistatik gertu ipar eskiari buruzko oinarritzko ezagupenak jasotzeko aukera izan zuten; beste talde bat Udabe aldean ibili zen eta hirugarrena Eskizan. Oso gustura nabarmendu du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Autobus batek Urbasara igo zituen ipar eski ibilaldian aritu zirenak, 8:30ean. Autobusa kontratatua zegoela aprobeztatuta, nahi zuten orok Urbasara autobusez igotzeko aukera izan zuen, 8:30ean



Igandean ibilaldian aritu zen taldeetako bat, Eskizan. UTZITAKOIA

eta 10:30ean. Buelta 12:30ean eta 14:00etan egin zuten. Aipatzekoa da asteburuan jende asko gerturatu dela bai Urbasara eta baita Aralarreko elurraz gozatzera. Aralarreko errepidea itxi egin behar izan zuten atzera ere, auto-ilarengatik.

Bestalde, Amaia Gerrikagoitiak aipatu nahi izan du eski taldeak elurra zapaltzeko makina erosi berria duela eta norbaitek lagun du nahi badie edo eurekin harremanetan jarri, [www.altsasukomendigoizaleak.com](http://www.altsasukomendigoizaleak.com) web orrirara jo daitekeela.

# kattuka

haur eskola

- 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat diseinatutako instalakuntzak.
- Familien beharrei egokitutako zerbitzuak (jangela, egonaldiak)
- Proiektu berritzailea.

Izena emateko epea:  
martxoaren 1etik 16ra

On-line egiteko aukera  
[www.kattuka.com](http://www.kattuka.com)-en  
(Info guztia eta dokumentuak  
web gunean daude).

Ateak zabalik eguna:  
Otsailak 29

[www.kattuka.com](http://www.kattuka.com)

[info@kattuka.com](mailto:info@kattuka.com) • Uhalde kalea z/g • Arbizu • 948 567 009



**Xabi Aldaz (Kaotiko taldeko bateria-jolea)**

Martxoak 1, 12:00etan, Guaixen ON-LINE ELKARRIZKETA

Bidali zure galderak [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) bidez

# Castroko eta Abadiñoko antzerkiak ekarriko ditu **Tarima Beltzak**

**Altsasuko antzerki taldearen elkartruke programari esker *Juegos prohibidos* eta *Guernica 1913* antzezlanak etorriko dira Altsasura**

**A**ltsasuko Tarima Beltza antzerki talde amateur-rrak beste aurrerapauso bat egin du eta asteazkenean elkartruke programa aurkeztu zuen Iortia Kultur Gunean. Helburua beste herri eta erkidego-etako antzerki taldeekin elkartruke egitea da, Tarima Beltzak presatutako antzezlanak beste tokietara eramateko eta beste tokietako antzezlanak Altsasura ekartzeko.

Aurkezpenean Tarima Beltzako Juan Manuel Herrero "Zapa", Mertxe Herrera eta Pedro Jimenez Altsasuko kultur zinegotzia izan ziren. Herreroak azaldu zuenez, urtean elkartruke bat egitea da asmoa, baina aurten bi eginen dituzte. "Castro Urdialeseko Tela Marinera taldea *Juegos prohibidos* antzezlanarekin etorriko da martxoaren 4an. Baina Abadiñoko Banarte taldearen *Guernica 1913* antzezlan saritu bikaina ekartzeko aukera sortu zaigu eta ezin genuen galdu. Martxoaren 12an



etorriko dira Altsasura" azaldu zuen. Tarima Beltzakoak irailean egon ziren Castro Urdialesen *Nunca fuimos heroes* antzezlanarekin eta oraindik ez dute zehaztu noiz joanen diren Abadiñora *Falstaff no cree en la otra vida* lanarekin.

## **Josefina Arregui Klinikako Lagunak taldearen alde**

Elkartruke programarekin Josefina Arregui Klinikako Lagunak elkar-teari bere babesa eman nahi izan dio Tarima Beltzak. Horrela, ema-

naldi bakoitzean txarteldegian jasoko den %10 aipatu elkartera bideratuko da. "Jendea antzerki-azgozatzera eta Josefina Arregi Klinikaren Lagunak elkar-tea babestera etor dadila animatzen dugu" nabarmendu zuen Herreroak. Sarrerren prezioa 6 eurokoa izanen da.

Pedro Jimenez kultur zinegotziak Tarima Beltzak kulturaren alde egiten duen lana azpimarratu zuen. Halaber, antzerki elkartruke hau Altsasurera "aukera garrantzitsua" zela nabar-

mentu zuen, "herri ezberdinen kultura elkarbanatzen delako" eta horrek "balio handia" duelako. Tarima Beltzak, Haize Berriak bandak, Erkudengo Ama abesbatzak eta Altsasuko inauterien batzordeak kultur elkartrukean "lan itzela" egiten dutela aipatu zuen eta Altsasuko Udaletik halako ekitaldiak babesten "gustu handiz" jarraituko dutela gaineratu zuen "gure herriko markan ezinbestekoak direlako".

+[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## **Kultura Departamentuak bi interbentzio eginen ditu aurten**

**N**afarroako Gobernuak kultur arloan aurtengo dituen lan ildo estrategikoak aurkeztu zituen. Kultura, Kirol eta Gazteria kontseilari Ana Herrero jakinarazi zuenez, Historia Ondararako Zerbitzuak Aralarko erlikia-ontzia zaharberrituko du. Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako buru Jose Mari Ustarrozek jakinarazi digunez, "duela urte batzuk erori egin zen eta, aspaldi, ukitu gabe dago. Orain txukundu eta sendotu eginen dute". Aralarko aingeruak herriz herriko ibilbideari ekin aurretik gutxieneko konponketa eginen diote eta bisitak despeditzean erabateko konponketa eginen diote. Bestalde, zerbitzu berak Urban arkeologia lanak eginen dituela iragarri zuen.



## **bazterretik**

### **Argiñe Berastegi**

#### **Nire Arte Galeria**

Aurrekoan zure etxera egokitzen ez den obra bat erosi eta ganbaran gorde beharrak kolezionista egiten zaituela irakurri nuen. Orain dela urte batzuk arraroa eta bitxia, edota luxuzko zerbait, zirudien etxeko paretak artelanez estaltzea. Egun, aldiz, gero eta jende gehiagok "osatzen" ditugu gure

etxeak artelanez. Eskulturak eta margolanak maskota bilakatu eta gure egunerokotasunaren parte egiten ditugu. Horregatik, garrantzitsua izango da hauek maitatzea. Berdina gertatzen da enpresa handiekin. Gero eta enpresa gehiagok, eta mota oso ezberdinetakoak gainera, artean inbertitzen dute, euren lantokiak espazio kultural bilakatu. Ideia honekin Iruñetik kilometro

gutxira dagoen Bodega Otazu dator kit burura. Arte garaikide bilduma oso garrantzitsua sortzen joan da azken urteetan. Bertan artista handien obrak bizitzeko aukera paregabea daukagu: Rafael Barrios, Xabier Mascaró, Isaac Julien, Jose Manuel Ballester, Anish Kapoor... Hemen artea ikusteaz gain, edan daitekeela diote. Horren beste adibide bat, enpre-

setarako makinaria egiten duen Errioxako Wurth enpresa dugu, zeinak industrialdeetan kulturara egokitutako espazioak sortzea duen helburu. Eta, Bodega Otazu-n bezala, artista ugariaren artelanak ikus ditzakegubertan, Anselm Kiefer, Max Beckmann, Max Ernst, Edvard Munch, Pablo Picasso, Anish Kapoor, Henry Moore, Jackson Pollock, Fernando Botero, Andy Warhol eta

Eduardo Chillida besteen artean. Gurera bueltatuz, jakin badakit artelanak erosteko aberatsa izatea ez dela beharrezkoa. Arteaz gozatzeko edo gozatzeko garrantzitsua da; geroz eta arte gehiago ikusi, orduan eta gehiago gustatuko zaizu artea. Beraz, bisitatu ditzagun gure herrietako erakusketak, galeriak, museoak, etxeak eta baita enpresak ere.

gehigarria

## Etxebizitza eraikuntza

**948 564275**  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)  
[publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus)

# Santano, sariak pareka

Ondare hezkuntzan berrikuntza sustatzen duen OEPEk (Observatorio de Educación Patrimonial en España) eta Alberto Jimenez-Arellano Alonso fundazioak deitutako bi lehiaketetan sari bana eskuratu ditu Helena Santano Cid altsasuarrak. Ondarerako gaituak izeneko lehiaketako lehen saria Santanok eskuratu zuen. *In-visible: hilos anudados* lanean sortzailea bere adin ezberdinetako argazkiekin osatutako soinekoa janzten eta kentzen ageri da. Lehiaketara aurkeztutako lanen artean Santanok hobekien adierazi zuen pertsona baten eta bereziki gertu duen objektu edo ondare ez-material baten arteko lotura.

Irakaskuntza berrikuntza



ondarea azalean izeneko lehiaketan, berriz, Santanok bigarren saria eskuratu zuen *Los hilos de lo invisible* izenburuko interbentzioaren bideoarekin. Sortzaileek ikasleen eta bere ondareen arteko loturak landu behar zituzten.

Altsasuarrak Valladolideko campusean hariarekin amarauna sortu zuen joan den urteko garagarriaren 12ko eguerdian. Interbentzioaren ondorioz campusetik zebiltzanak hariak goitik pasatzen ikusten dira. Eta guztia Altsasu-



ko ezkila errepikaren soinu grabazio batekin lagunduta dago. Arte terapia masterra bukaeran egin zuen Valladolideko interbentzioa (hiri horretan eta Madril-en ikasi zuen).

Bideoak: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

# Guadalquivirreko gondolariarena

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Umore surrealista eta absurduko komedia da Altsasuko Kultura Zerbitzuak biharko eskaintzen duena: *Il gondolero di Triana*. Sevillako auzo horretako gondola gidariaren, Luigiren bizitzaren gorabeherak antzeztuko ditu Marcelo Casas aktoreak. Cesareo Esteanez umore berezia duen obra horren zuzendaria da.

Luigi urte eta erdiko adinarekin jaio zen Trianan. Luigi Candelini handiaren ilobak, familia



aurrera ateratzeko goiz hasi behar izan zuen lanean. Gurasoak, osaba eta aitona bere ardurapean geratu ziren eta bere haurtzaro goxoak bizitza karga handi bat izan daitekeela erakutsi zion. Aurrea egiteko makina bat lanetan aritu behar izan zuen Luigik. Horieta-ko bat gondola gidaria izatea Guadalquivir ibaian. Hala dago jasoa Sevillako artxibo notarialen protokoloetan. Trianako gondoliero bakarra bilakatu zen. Gizon lerdena, adoretzu eta seduktorea, baina batezere "faldelak" bere gain hartzen aditua zen Luigi.

## Esne Beltza Sound Systema

Gaur, 22:30ean Olatzagutiako Barandi tabernan



Trikitixarekin lagundutako hip hop, reggae, soul, rock, folk eta kumbia doinuuen bidegurutzetik sortzen ditu Esne Beltzak bere doinuak. Taldearen Sound Systemak bere hiru kidek osatzen dute: Xabi Solanok (trikitixa), Zigor DZ (scraxak eta platerak) eta Pini (ahotsa). Kontzertuaren aurretik eta ondoren DZ-k bere musikarikin girotuko du taberna. Gaur Esne Beltzaren betiko kantuak abestuko ditu Pinik Olatzagutian, baina bestelako melodiekin, modu akustiko eta biluziagor bat eskainiz.

Barandi tabernak gaurkoaz aparte, heldu den ostiralerako emanaldia iragarri du. Hesian taldeko Fran eta Zuriñe akustikoan ariko dira jendaurrean.

## Aranbururen kantaldia

Larunbatean, 19:00etan, Altsasuko Haritza tabernan


Antton Aranburu kantugilea bihar Altsasun izanen da. Ahotsa eta gitarra akustikoa lagun, hala sortzen ditu kantuak Aranburuk. Biharko emanaldian Bikiak izanen ditu aldamenen, hau da, Asier Yarza (kontrabaxua eta koroak) eta Iñaki Fernandez de la Peña (bateria eta koroak). "Bizitzari kantu egiten dion lana" aurkeztera heldu dira Altsasura: "mezu baikor eta sozialekin zipritindua eta estilo aldetik anitza" den *Bizirik* diskoarekin (2013). Rocka eta kantugile amerikarren doinuak akustikoan entzuteko aukera aparta. Lan hori Aranbururen bigarren lana da, 2010ean Gorkada diskoa argitaratu baitzuen.

Kantugileari etxetik heldu zaio musika zaletasuna. Autodidakta, herrian, Busturian hasi zen gitarra jotzen, festetan eta dantza taldeko bandan. Zenbait taldeetako partaide izan zen baina musika bazterrean utzi zuen. 14 abestiz osatutako lana argitaratu izuli zen kantagintzaren abarora.



Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Arkangoa tabernan

Xabier Zamargilea lekunberriar kantautorearen proiektua da *Zamarra eta Aterkia*. Jorge Abadias gitarra irakasle eta lagunak berak sortutako kantuei konponketak egiten lagundu dio. Hiru maketa grabatuak baditu ere, azkena da jendaurrean zabal-tzen ari dena. Xabierrek, gitarra akustikoarekin eta Jorgek, gitarra elektrikoarekin, pop-jazz ukituko euskarazko kantuak eskainiko dituzte bihar Altsasuko Arkangoa tabernan.



## Non erabili

### LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegian.

### GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

### MARI JOSE

### ILEPAINDEGIA

ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

### FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

### EROSKI BIDAIK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izanez. Eskaintza ez metagarria.

### LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN

50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

### LARKA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketen-gatik 10€ko deskontu bala (beherapenetan izan ezik).

### LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

### FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

[www.guaixe.eus-en](http://www.guaixe.eus-en) zerrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€  
948 564 275

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 50%	euria: 100%	euria: 100%	euria: 97%	euria: 80%	euria: 93%	euria: 90%
Min: 2 Max: 8	Min: 3 Max: 5	Min: 1 Max: 2	Min: 2 Max: 3	Min: 1 Max: 5	Min: 2 Max: 7	Min: 3 Max: 7

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	16.3	-3.8	11.7
Altsasu	14.5	-3.5	6.8
Aralar	-	-	15.9
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
1	9	15	23

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

## Bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera  
 Artazako Kanpina: %10eko deskontua  
 Lacturale: esneki lotea  
 Artium museoa: 2 sarrera  
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan  
 Magna Gurpea: 2 sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera  
 Artazako Kanpina: %10  
 Lacturale: esneki lotea  
 Artium museoa: 2 sarrera  
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan  
 Magna Gurpea: 2 sarrera

# >> 11 galdera

## Jaxone Mendiola

### Irakurketa azkarreko teknikaz

Testua: Maialen Huarte Arano



## ALDIZKARIAK:

### poesiaren papera, paperaren narrazioa

GUALIXE KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@gualixe.eus

**1. Irakurketa azkarreko teknika, zer da?**  
 Irakurle ia guztiek duten ohiko irakurketa zaharkitu, guztiz geldo eta ajez jositakoa errotik aldatuz, goi mailako irakurle eraginkor, ulermen jasoko eta abiadura handiko irakurle izatea lortzen duen teknika da. Praxagorrik diseinatu eta sortutako metodologia da. Irakurle eraginkor eta goi mailako izatera bideratutako metodologia.

**2. Praxagorrik zergatik ikusi du aproposa lanketa hau?**  
 Jarduera profesionalen zein akademikoan denbora asko irakurketari eskaintzen diogu. Gure irakurketaren kalitatea, abiadura, ulermen maila eta irakurritako arekiko izaten dugun arreta eta kontzentrazioa ahalik eta onenak izatea lortu behar dugu.

**3. Irakurketa azkar egiten denean, ez da irakurri gabe datu garrantzitsurik uzten?**  
 Gizakiaren burmuinak abiadura handian datuak askoz hobeto prozesatzen ditu abiadura motelean baino. Barneratuta ditugun jarduera, ekintza eta jarraibideez hausnarketa sakonik nekez egiten denez, ez da hobera biderik izaten. Irakurketarekin gauza bera gertatzen da. Adinak gora egin ahala, irakurketan gainbehera.

**4. Zergatik ?**  
 Azkar irakurtzen ikasi egiten da eta ikasitakoan, informazioa, datuak eta idatzitakoaren edukia bere osotasunean, goi mailako ulermena izanez, barneratzeko

gaitasuna izaten da, inolako daturik bidean galdu gabe.

**5. Nola lortzen ahal da abiadura handitzea?**  
 Aldez aurretik etengabeko lan zehatza, sendoa eta sakona egin behar da.

**6. Zer onura du irakurketa azkarreko teknika erabiltzeak?**  
 Denbora erruz aurrezteak, irakurketa erraza izatea, motibazio handia, ulermen jasoa, arreta eta kontzentrazio mailak nabarmen igozteak, astero gutxienez hiru liburu irakurtzeko gaitasunaren jabe izatea, aberastasun lexiko handia, norbere buruarekiko konfiantza eta nork bere gaitasunekiko erabateko ziurtasuna ditugu.

**7. Zertarako izan daiteke baliagarri?**  
 Eguneroko jardunean, ezinbestean, irakurtzea egokitzen zaigu eta errepikatuzko ekintza dugun arren ez gara, irakurketaren arloan behintzat, inolaz ere eraginkorrak. Irtenbidea ez da gauzak egiten ditugun bezala egiten jarraitzea.

**8. Zein berezitasun du, ohikoa den irakurketa batetik?**  
 Bere erosotasun ikaragarria, informazioa silabaz irakurri beharrean hausnarketa unitate osoz irakurrituz jardutea, irakurgaiaren zailtasunaren arabera abiadura desberdina izateko gaitasuna lortzea, kanpoko eta erdiguneko ikus eremuak zabalduz hausnarketa unitate zabalagoak ikusteko gaitasuna lortzea, motibazioa maila

jasoan izatea eta beste. Irakurketari hitzez garrantzia ematen diogu eta ekintzez, kendu.

**9. Ikastaroa Etxarrin izanen da.**  
 Martxoaren 8an, 17:30etan, Etxarriko Kultur Etxean Praxagorriren Ulermen Jasoko Irakurketa Azkara Metodologiaren aurkezpen-hitzaldia izanen da. Irakurle gisa gure ohitura, ulermena eta irakurketa-prozesuaren egokitasunaren inguruan jardun eta gogoeta egingo da.

**10. Abiadura handiagoz ulermen maila jasoagoa izaten ahal da?**  
 Praxagorriren metodologiaren hasieratik abiadura gero eta handiagoak lortzeko ekimenak lantzen ditugu ulermena alde batera utzita. Goi mailako ulermenerako ezinbestekoa da abiadura handietan jarduteko gaitasuna lortzea.

**11. Nola definituko zenuke irakurketa ?**  
 Gure begiak dira gizakiak ezagutzen dituenen artetik tresna optikorik harrigarrienak. Ohiko irakurketak begie alferreko lan ikaragarria eragiteaz gain, ez dio ulermenera inolako mesederik egiten. Irakurketa, maila askotan egiten den prozesu konplexua dugu eta ezinbestekoa da, goi mailako irakurlea izatera iritsi nahi baldin bada behintzat, ohiko irakurketa zaharkitua behin betiko baztertu eta irakurketa eraginkorrerako teknologiak barneratzea irakurtzen berrikasiz. Ikasitakoagatik baino irakurritakoagatik gara garen bezalakoak.